



**MARIA VICTORIA JOARISTI OLARIAGA AND., OIARTZUNGO UDALAREN IDAZKARI BEZALA.**

ZIURTATZEN DUT: Udal Osoak 2010eko apirilaren 28an egindako batzarraldian, ondorengo erabakia hartu zuela, beste batzuen artean:

**“UDAL BEILATOKIA ERAIKITZEKO PROIEKTUAN SARTUTAKO LANEN BEHIN BEHINEKO ESLEIPEN PROPOSAMENA**

Udal honek 2010eko martxoaren 10ean egindako batzarraldian udal beilatokiaren eraikitze proiektua, zein urriaren 26ko 13/2009 Errege Dekretu-legeak arautzen duen Enplegurako eta Tokiko Iraunkortasunerako Estatu Fondoaren baitan finantzatu den, jendaurrean zabalduko Jardunbide Negoziatu bidez kontratatzeko espedientea eta kontratua araupetzeko administrazio-baldintza zehatzen agiria eta teknikoena onartzea erabaki zuen.

Udal Osoak 2010eko martxoaren 30ean egindako batzarraldian lizitazioan parte hartu behar zuten enpresak aukeratzea onartu zen eta gonbidapenak bidali zitzaizen eskaintzak aurkezteko epea emanez.

Epea amaiturik hiru eskaintza jaso dira eta Kontratazio Mahaiak 2010/04/19an bilduta, proposamenak irekitzeari ekin zion. Udal Arkitekto Teknikoak dagokion txostena idatzi du eta Kontratazio Mahaiak, 10/04/23an egindako bilkuran esleipen proposamena luzatu du.

Gauzak horrela, Obrak eta Zerbitzuak Batzordeak, joan den apirilaren 23an luzatutako diktamenaren arabera, Udalbatzak ondorengo erabakia hartzen du:

1.- Construcciones Alzola S.L.ri behin behingoz esleitzea “udal beilatokiaren eraikitze proiektua”n sartutako lanei dagokien obra-kontratua, 489.505,00 euroko kopuruan (BEZ barne) eta lau hilabetetan egiteko. Lanak burutzeko hamar langile okupatuko ditu, 5 enpresan integratutakoak eta 5 langabeziatik kontratatutakoak.

2.- Aipatutako enpresak 21.099,35 euroko behin betiko garantia aurkeztu beharko du eta baldintza administratiboen 22. artikuluan adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko du 10 egun balioduneko epean, behin behineko esleipena kontratatzailearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita. Epe hori igaro eta gero, eta aurkeztu beharrekoak aurkeztu baditu behin betiko esleipena egingo da hurrengo 10 egun baliodunetan, Alkatearen dekretu bidez.”

Eta horrela jasota gera dadin dagokion espedientean, ziurtagiri hau ematen da, azaroaren 28ko 2.568/1.986 Errege Dekretuaren 206 artikulua arabera Alkate Jna.ren On-Iritziarekin batera, Oiartzunen, bi mila eta hamarreko apirilaren hogeita bederatzian.

